



Lapurdum

Euskal ikerketen aldizkaria | Revue d'études basques |
Revista de estudios vascos | Basque studies review

Numéro spécial 2 | 2015
Othoi çato etchera

Aitzin-Solasa

Xabier Lamikiz, Manuel Padilla-Moyano et Charles Videgain



Édition électronique

URL : <http://journals.openedition.org/lapurdum/2531>

DOI : 10.4000/lapurdum.2531

ISSN : 1965-0655

Éditeur

IKER

Édition imprimée

Date de publication : 1 octobre 2015

Pagination : 9-13

ISBN : 978-2-9553413-1-5

ISSN : 1273-3830

Référence électronique

Xabier Lamikiz, Manuel Padilla-Moyano eta Charles Videgain, « Aitzin-Solasa », *Lapurdum* [Linean], Numéro spécial 2 | 2015, Sarean emana-----an 01 septembre 2016, kontsultatu 01 mai 2019. URL : <http://journals.openedition.org/lapurdum/2531> ; DOI : 10.4000/lapurdum.2531

Lamikiz X. | Padilla Moyano M. | Videgain C. | IKER

AITZIN-SOLASA

Ondoko orrialdeetan *Lapurdum* agerkariak ale berezia eskaintzen dio Xabier Lamikizi zor diogun aurkikuntzari, hots 1757. urtean Baionatik Kanadako Louisbourg hiriarri buruz lapurteraz igorria izen zen gutun bildumari. Ondoko artikuluetan, aurkikuntza horrek ekartzen diguna xehekiago aipatzen dugu.

Alabaina, *Le Dauphin* izeneko itsasontzi batean izan ziren gutunen atzemateko merezimendua izan du X. Lamikizek. Londreseko artxibo batean dauden dokumentuak biltzeko zortea izan zuen, bere tesiarako ikerketa ereman zuen denboran.

Kanadako Louisbourg herrira joateko gogoia zuten *Le Dauphin* itsasontziaren marinelek. Bizkitartean angelesek itsasontzia harrapatu eta bahitu zuten, eskipaia eta guzi, eta bildu zituzten dokumentuak (gutunak barne) Londreseko artxiboetan gorde.

Aurkikuntza guziz ederra da gutun horiek osatzen duten ustekabeko dokumentazioa. Eder eta arraro, gureganaino heldu diren euskarazko gutunen zerrenda zein urri eta murriz den kontuan hartzen balinbadugu, Manu Padillak erakusten duen bezala.

Liburu hau bi partetan emana da. Lehenik euskarazko gutunak aurkezten ditugu, zer kokapen historikoa izan duten aipatuz eta euskarazko gutuneriaren ezaugarri batzuk emanez. Eranskin batean, Ile Royaleko euskaldunen hizkuntza ohitzei doazkien bi dokumentu agerrarazten ditugu: lehenak euskaldunek Louisbourgen apez bat euskaldun izatea nahi zutela erakusten du, eta bigarrenak hainbat jakingarri ematen du bertan ziren martxant eta marinelen lapurtarren bizimoldeaz.

Bigarren parteak gutunen beren testua ematen du, lehenik bertsio diplomatiko batean, eta ondotik egungo grafiaren araberrako bertsioan. Bi bertsio hauek zutabe paraleloetan dira emanak, irakurleak nahi edo komeniago duena aise hauta dezan. Azkenik, testuan agertzen diren aditz-formen zerrenda ematen da, indize eta izendegi batekin batera.

Liburu honetaz gain, Interneten gutunen argazkiak laster kontsultagarri dirate. *Facsimile* horiek begi aitzinean izanez, nahi duen irakurleak egiazta lezake guk egindako transkribapena noraino zuzena den ala ez. Erran gabe doa ager ditezkeen hutsak edo gaizki ulertutako pasarteak gure gain hartzen ditugula.

Historiaz bi hitz

1757. urtean, apirileko 4an, Baionako portua utzi zuen *Le Dauphin* itsasontziak. Martin Lermet deitu kapitainak eta beste marinelek Ameriketako Louisbourg hiria ikusi nahi zuen aste zenbaiten barne. Orduko postarik ez baitzen, Lapurdiko jendeen ohitura zen Louisbourgen bizi ziren askazieri gutunak igortzea itsasontzietako marinelen kondu: 50 euskarazko gutun igorri zituzten 48 lagun lapurtarrek. Frantsesek eginak ziren gutunak ere bazeramatzan untziak, bainan liburu honetan haietaz ez gara axolatu. Bertzalde, itsasontziak ardoa, arropak, oihalak eta zapatak bazeramatzan eta, zernahi gerta, artillerazko “peza” batzuk ere, erran nahi baita kanoiak. Agiri ofizial batek frogatzen zuen kortsuan ibiltzeko baimena bazeukala kapitainak, Frantziako erregek emanik. Bainan fortuna ez zuten alde izan eta garai hartan Zazpi Urteko Gerra baitzen hedatu, marinela angelesek *Le Dauphin* harrapatu zuten. Kapitaina galdezkatua izan zen High Court of Admiralty deitu auzitegiaren aitzinean. Almirantegoko Auzitegi Goren horren paperak artxibatuak izan ziren Londresen, ondoko dokumentazio guziarekin eta, erran bezala, han hatzeman zituen X. Lamikizek duela zenbat urte. Dokumentu horiek Londreseko Dorre famatuan egon ziren 1856 arte baina egungo egunean beste auzo batean atxikiak dira, The National Archives instituzioaren magalean. Egia erran, gutun horiek Kanadako lagun ikerlari batzuek eskuztatu zituzten bainan sobera kasurik eman gabe, ez baitzuketek berek euskara ulertzen. 2003. urtean X. Lamikizek begiztatu zituen, bere tesiaren osagarriak bilatzen ari zela. IKER UMR 5478 CNRSko taldekideak abisatu zituelarik, erabaki genuen gutun horien berri eman behar zitzaiola euskaldun jendeari. Laguntza ere eskatua izan zen ikerketa proiektu hau bururatzeko; laguntza hori etorri gabe ere, testua argitaratzea beharrezko zela iduritzen zitzaigun.

Argitaratzen dugun eskipaiaren zerrendak aditzera ematen duenaren arabera, marinela gehienak lapurtarrak ziren (bata Bicente Lissaratsou deitzen da, Donibane Lohizuneko, adibidez eta beste bat, Jean Dechebehere, Ortaizeko), eta oso jende gaztea zen banaz beste. Bizitzeko baldintzak hortizak zirela ezaguna da. Lermet kapitain balinbazen, jabea edo “burjesa” Jean Laborde sal-erosketetan zebilen gizon ahaltsua zen, Bidarten sortu zena eta orduan Louisbourgen bizi zena.

Arrantzak pisu handia bazuen Louisbourgen baina komertzioa ere nolazbait garatu zen eta Europarekilako harremanek sare aski indartsua sorrarazi zuten hango bizilagunek. Euskaldun asko egoten ziren Île Royale uhartean Louisbourg herrian eta hango gizartean komunitate aski azkarra osatzen zuten, hainbertzeraino non eskatu baitzuten berentzat apez bat euskaldun izatea. Hori eskatu zutela aitzinetik bagenekien, baina M. Padillak bildu duen dokumentua eskaintzen digu zeinetan Urdoz izeneko apez euskaldun bat aipatzen baita euskaldunen artzai ona izan ledin.

Historian zehar oihartzun handia izan duen fenomeno aipatzen du X. Lamikizek. Marinela anitz, arrantza izateaz gain, askotan kortsario bilakutzen ziren. Kortsario ala pirata ez zen gauza bera. Pirata osoki bere gain ari zen. Kortsarioak, aldiz, eskuratzen zituen harrapakinetatik eta irabazten zituen mozkinetarik parte bat Erregeri eman beharra zion, ontsalaz.

Historio egileek ikertzen dute zergatik ote zen hain hedaturik orduko kortsario ihardunaldia. Zenbaiteraino abantail ote zeukan kortsario gisa bizia irabazteak ekonomia “baketsuago” batek ekar zitzakeen abantailen aldean? Bertzela erranez, kortsario ez ote zen besteak bezalatsuko fenomeno ekonomikoa, zeinetan euskaldunak beste jende anitz bezala

sartzen baitziren, ustez eta mozkin ederrik aterako zutela? Desafio eta erronka gaitza zen, duarik gabe. Haien bizitzeko moldeaz xehetasunak ematen ditu X. Lamikizek.

Beste artikulu batean, Manu Padillak aipatzen du gutun horien atzematzeak preziatzeko nolako laguntza ekartzen digun. Lehenik, erakusten du guregana etorri diren euskarazko gutun pribatuak guti direla, oro har. Gutu, eta aski barreiatuak eremuaren nola garaiaren aldetik. Aldiz, itsasontzian bildu gutun hauek multzo oso interesgarria osatzen dute, denak ber denbora eta guti edo aski ber lekuan idatziak izan baitziren, hots, Lapurdin, 1757. urteko lehen hilabeteetan, eta lapurteraz. Beraz izigarriko batasun interesgarria badaukate gutunetan agertzen diren testuek: orduko eta lekuko euskararen berri ematen digute xeheki. Ohartarazten dugu, ez baita ustegabe ttipia, gutunegile gehienak edo bederen gutun-igorleak emazte direla, %60 bat hor nonbait. Ikerketa zehatzak erranen digu zenbat eskuk idatzi duen zenbat gutun. Ikusiko da orduan gutun batzuk ez ote zituzten idatzi ofizios ari ziren eskribano publikoek edo besterik gabe idazten zekitenek, analfabetoak laguntzen baitzituzten. Batzuetan hala gertatu dela estipulatzen da gutun batean edo bertzean.

Mamiaren aldetik, ageri da askotan presazko gutunak direla eta Lapurditik hara igortzen diren gauzak aipatzen direla: zapatak, oihalak, arropak, janaria, edaria, etabar. Diru arazoak ere frankotan aipu dira, eta bereziki kexuak. Garaiko gorabeherak aipatzen dira ere naski, hala nola gerlak ekartzen zituen kalteak, bahitzeak eta heriotzak, baina herrian gertatu auziak ere. Hunkigarriena da aitamek, esposek, anai-arrebek, askaziek oro har igortzen dituzten deien samina, Louisbourgen bizi den laguna ahal bezain laster etxera itzul zedin. “Zato etxera” da gutunetan behin baino gehiagotan egiten den otoitz samina.

Erretolikaren aldetik, ikusten da gutun gehienek molde eta tornu bertsua jarraitzen dutela, bereziki politeziatzko eta kortesiazko formuletan. Gutun-igorleek molde horiek nolaz ikasten zituzten ikertzeko bada ere, zernahi gisaz *Le Dauphin*-en ikusten ditugun gutungintza herrikoia moldeak Europa osoko tradizio batean kokatzeko dira.

Gutun generoa

Hizkuntzaz den bezainbatean, ohar guti baizik ez dugu egiten, edizioan agertzen diren iruzkinez gain, ondoko lan baten funtsa izanen delakoan. Ororen buru erabiltzen den mintzaira ez zaigu bat ere arrotz, ortografiak ematen dituen trabak gainditzen balinbaditugu.

Liburu honetan argitaratzen duguna ez da gutun horien deskubrimenduak hartze eta merezi duen guzia. Hurrundik ere. Egingei dugun proiektu zabalago batean beste alderdi hanitz sartuko dugu: lehenik gutun horien testuak korpus bihurtu nahi ditugu, transkripzioak, itzulpenak eta anotazioa eskainiz. Agian beste hizkuntzetan agertu diren gutunekin konparaketa eginen dugu, dakigularik finlandieraz adibidez 50 gutun badaudela Londresen, baina milaka badaudela ingelesez, nederlandera edo frantsesez egindako gutunak.


Gutun horiek informazio interesgarria ematen digute euskararen historiaren, dialektologiaren, soziolinguistikaren, gutun generoaren aldetik.

- Linguistikarentzat, ongi zedarriztatua den testua eskaintzen digute, denbora bereko eta leku bereko lapurterarekin konparaketa egiteko parada ematen duena.
- Soziolinguistikarentzat, jadanik diglosian sartua den euskararen egoera eta gramatizazioa ikertzeko informazio aberatsa eskaintzen du.

- Edozein gutun genero berezia den aldetik, ikusiko dugu zer duten berezirik gutun horiek: nola agertzen den igorleen intimitatea, zein diren adierazi dituzten gai nagusiak, sendimenduak barne.
- Historiaren aldetik, azkenik *Le Dauphin* itsasontziaren gorabeherak sartzen dira Atlantikoaren historioan, Kanadaren eta Euskal Herriaren arteko harremanetan, kortsaren eta ekonomiaren arteko harremanetan, beraz lekuko nola munduko historian.

Bada beraz egitekorik hemendik aitzina. Bego ondoko orrialdeetan argitaratzen duguna! Euskal irakurleari interesgarri izanen zaiola sinetsi nahi dugu.

Baiona, 2014ko otsaila



J. Seibel Bombardier & Contgen: *Le plan de Louisbourg dans l'Isle Royale au Canada* (1758). Bibliothèque et Archives Canada.